

# ORDAINDUTAKO ZAINTZA LANEN INGURUKO HAUSNARKETA: EAEko KASUA

MERTXE LARRAÑAGA, YOLANDA JUBETO

Ekonomia Aplikatua I.  
Euskal Herriko Unibertsitatea

---

## ABSTRACT

■ *Los trabajos domésticos y de cuidados son fundamentales para el mantenimiento de nuestros estándares de vida y para el funcionamiento del sistema económico. En los últimos años se observa un incremento de la externalización de dichos trabajos vía contratación de servicios privados y/o públicos. Este artículo pretende analizar la situación y tendencias actuales de este proceso de externalización en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Para ello estudiaremos las características de las empleadas domésticas y de los trabajos que desempeñan sobre todo en el área de cuidados. Respecto al sector público nos centraremos en el todavía incipiente desarrollo de la ley de dependencia y la Ley de Servicios Sociales de la CAPV, consideradas ambas fundamentales en la construcción del cuarto pilar del Estado del Bienestar. Haremos especial hincapié en sus problemas de financiación.*

■ *Etxeke lanak eta zaintzakoak gure bizitzako oinarria mantentzeko eta sistema ekonomikoa funtzionatzeko ezinbesteko elementuak dira. Azken urteetan, aipatu lan motak zerbitzu publiko edo eta pribatuak kontratatzearen bidez, gero eta gehiago kanpora ateratzen ari direla ikusi da. Artikulu honek kanpora ateratzeko prozesu horren egungo egoera eta joerak aztertu nahi ditu Euskal Autonomia Erkidegoan. Horretarako, etxeke langileen eta horiek, gehienbat, zaintza esparruan egiten dituzten lanen ezaugarriak aztertuko ditugu. Sektore publikoari dagokionez, hasiberri diren EAEko mendekotasunari buruzko legea eta gizarte zerbitzuei bu-*

*ruzko legearen garapenean jarriko dugu arreta. Izan ere, aipatu bi lege horiek Ongizatearen Estatua eraikitzeko ezinbesteko laugarren zutabea baitira. Arreta berezia jarriko dugu lan horiek dituzten finantzazio arazoetan.*

■ *Housework and care are fundamental for the maintenance of our living standards and for the functioning of the economic system. In the last few years, we have observed an increase in the outsourcing of this work by means of the contracting of private and/or public services. This article attempts to analyze the current situation and tendencies of this outsourcing process within the ambit of the Autonomous Community of the Basque Country. To do so, we will study the characteristics of the domestic employees and the work they carry out, above all in the field of care. With regard to the public sector, we will focus on the still incipient development of the Law of Dependence and the Law of Social Services of the Autonomous Community of the Basque Country, both regarded as fundamental in the construction of the fourth pillar of the Welfare State. We will place special emphasis in their financing problems.*

---

## 1. Sarrera

Guzti-guztiok gure bizitzaren zehar besteen beharra dugu, norbaitek zaintzen gaitu jaio eta gero, zahartzen garenean eta jakina baita gaixotzen garenean edo ezintasun nahiz fisiko nahiz piskikoren bat daukagunean. Beraz dependentzia ez da salbuespena edo istripu bat, gizaki guztion berezko ezaugarria da. Eta gutariko askok zainduak izateaz gain zaindu egiten dugu eta zaintzen ditugi batez ere gure ingurukoak: umeak, gurasoak etabar. Zaintzak guztiz beharrezkoak dira gizarteak eta ekonomiak funtzionatuko badu. Luzaroan, mende askotan, zaintza lan hauek ez zuten eztabaida handirik sortzen, lanaren zatiketa sexual klasikoa bizirik zegoen bitartean emakumeek, gehien bat etxeko andreek, bermatzen zituzten eta. Hau da laurogeiko hamarkadararte emakume gehienak arlo pribatuan aritzen ziren jardunaldi osoan, gizonak arlo publikoan aritzen ziren bitartean. Eta emakume horiek, oso esker publiko eta sozial eskasaren truke familiako umeak, gurasoak, beste senitarteko batzuk, gaixoak etabar zaintzen zituzten. Eta zaintzen zituzten baita etxeko gizonezko helduak ere eta zaintza hauei esker gizon heldu horiek merkatuan jardunaldi osoko enpleguetan lan egiteko askatasuna lortzen zuten. Hortaz, etxeko lanak eta zaintza lanak bermatuta zeudelari esker, «homo economicus»a, hau da gizonezkoa independente, arrazional eta autonomo gisa irudikatu ahal izan du ekonomia diziplinak. Baina, gizartearentzako debaldeko lana izan bada emakumeentzako ez da inoiz doakoa izan eta kostuak maila diferenteetan neurtu daitezke: dirutan, denboran, energian, egonezinean...

Ordaintzeko lan hauek ekonomiak ez ditu inoiz aintzakotzat hartu, ekonomia ofiziala bakarrik merkatutik pasatzen denaz arduratu baita eta merkatu-ratzen dena bakarrik sartzten baita Kontabilitate Nazionalean. Beraz, lan hauek ez dira sekula kontatu eta kontatzen ez dena ez da. Baina ekonomia ofizial honen alboan badaude bestelakoak, batzuk kontabilizatzen ez direnak, beste batzuk kontuan hartzen ez direnak, badaude baita ilegalak eta debekatuak ere. Ekonomia ez-ofizial hori negazioz definitzen da eta negazioz definitzen diren beste kontzeptu askoren antzera bere ezaugarrietariko bat aniztasuna da. Eta aniztasuna ekonomia honi buruz hitz egitean erabiltzen diren termino ugarietan islatzen da: ekonomia informala, ekonomia urperatua, lurpeko ekonomia, ekonomia paraleloa, ekonomia beltza, ezkutuko ekonomia... Ba ekonomia guzti horietatik ezkutatuena ekonomia domestikoa da inolako zalantzarik gabe, hau

da, etxean eta etxeokentzat egindakoa. Eta oso ekonomia berezia da ez baitu merkatuko logikarekin funtzionatzen.

xx. mendeko azken bi hamarkadetatik hona aldaketa sozial asko eman dira bi besterik aipatuko ez ditugun arren: alde batetik emakumeak lan merkatuan sartu dira eta honek lanaren zatiketa sexuala aldatu egin du eta pixkanaka jardunaldi osoko etxeko andreak desagertzeko joera nagusitzen da gizarte gehienetan. Honek jakina ez du esan nahi etxe barruan betetzen ziren lanak desagertu direnik edo desagertuko direnik. Hori bai, emakumeen parte-hartze publikoa handitzean zaintza lanen inguruko eztabaida piztu egin da.

Bestalde, bizi-itxaropena jaiotzean luzatu egin da eta gaur adibidez EAEn azken datuen arabera gizonetzkoen bizitza itxaropena 77 urtetakoa da eta emakumezkoena 84 urtetakoa eta orain dela 30 urte 70 eta 77koa zen<sup>1</sup>. Hau, besteak beste, osasunean, elikaduran eta higienean emandako aurrerapenen ondorioa da eta hobeto bizi garen seinale ere bai baina urte gehiago bizitzean urte gehiagotan besteen dependente izango garen seinale bezala ere har daiteke.

Emakumeen parte-hartzea merkatuan zabaldu eta nagusitu izanak nahitana-hiez aldaketak eragin ditu etxeko lanak egiteko eta kudeatzeko moduan. Baina emakumeen merkatuko lana nagusitu den arren herri askotan eta bereziki Europako hegoaldekoetan, ez da aldaketa publiko nabarmenik eman, hau da, aldaketa sozialei ez zaie behar bezalako erantzun publikorik eman eta askotan familiak zaintza lanak bermatzea euren kontua, kontu pribatua bezala bizi izan dute. Eta zaintza beharrei aurre egiteko estrategia pribatu ezberdinak ikusi izan ditugu, hiru batez ere: batzutan emakumeen presentzia bikoitza deitzen dena, hau da, familiako emakumeek bateratzen dituzte bai merkatuko eta bai etxeko lanak. Jane Lewis-ek (2001) dioen bezala, lehen estrategia honek emakumeen prekaritate laborala ekarriko du «soldata bien»eredu honi «zaintzaile bien» eredia eranstean ez zaion bitartean. Beste batzuetan familia josten dute eta familia zabaleko laguntzari esker egiten dute aurrera. Eta azkenik, beste askok ahal den neurrian etxeko lanak eta zaintza lanak kanporatu egin dituzte, merkaturatu. Hori bai merkaturatzeak ez du sexu aldaketarik ekarri eta soldata baten truke zaintza lan pribatuak eta etxeko lanak egiten dituztenak emakumeak izaten jarraitzen dute.

## 2. Zaindutakoak eta zaintzaileak

Hiru dira, batik bat, zaintza behar nabarmenak dituzten taldeak: umeak, ezinduak eta zaharrak. Jakina ezugarri hauek ez dira independenteak eta ezintasunak dituzten haurrak egon badaude eta zer esanik ez ezintasunak dituzten adinekoak ere asko dira.


<sup>1</sup> Eustat. *Demografia adierazleak*. Azken adierazle demografikoak 2006koak dira.

Umeei dagokienean begibistakoa da ume kopurua jaitsi egin dela. Honela EAEn orain dela 30 urte ugalkortasun indize sintetikoa 2,7koa zen eta 2006an 1,2koa. Baina nahiz eta ume gutxiago izan honek ez du esan nahi umeen zaintza lanak jaitsi egin direnik. Askoren ustez alderantzizkoa gertatu da eta horrela da arrazoi ezberdinagatik. Kontuan izan behar dugu haurtzaroaren limiteak etengabe aldatzen direla eta herri pobre askotan haurtzaroa benetan motza bada ere (ez da harritzekoa hainbat tokitan umeak hamar urte bete baino lehen lanean ikustea), gure inguruan luzatu egin da eta honen adibidea derrigorrezko hezkuntza 16 urterarte luzatu izana da. Bestalde, gurpilezko trafikoa dela, espazioen banaketa dela eta hirigintza eredu dela eta hirietan umeen kontrako giroa sortu da eta ez dugu ahaztu behar European ume eta gazte gehien gehienak, %75 inguru, hirietan bizi direla. Guzti honek umeen dependentzia areagotu egin du. Gainera familiak txikitu egin dira, hortaz, umeen arduraren pertsona gutxiagoren gain jauzten da. Arrazoi hauek direla eta umeek zaintza gehiago, zaintza hobek eta urte gehiagotan behar dituztela esan genezake.

Ezintasuna dutenen inguruan INEk 2008an argitaratu duen inkestaren arabera, EAEn ezinduen artean emakumeak gehiengo dira, %60 eta 1. irudian ikusten den bezala EAEko familien %19tan ezintasuna duen pertsonaren bat edo gehiago bizi dira.

## 1. irudia


## Familiak ezintuen arabera EAEn 2008



Hori bai, ezintasuna eta zahartzaroa bereiztuz gero, 2. irudian ikusten den legez, merkatuan aritzeko adina dutenen artean gizonak emakumeak baino gehiago dira eta 65 urtetik gora berriz emakume gehiago dago bai populazioan emakume gehiago dagoelako eta baita gaixotasun gehiago dauzkatelako ere.

## 2. irudia

### Ezintuak adinaren arabera EAEn 2008 (mila pertsona)



Ondorengo grafikoak, 3. irudiak, agerian uzten du emakume eta gizonen zatiketa sexuala ezintasunetan ere islatzen dela: lan istripu, trafiko istripu edo gaixotasun laboraletan gizonak nagusitzen dira eta istripu domestikoetan berriz emakumeak<sup>2</sup>.


Zahartzaroari dagokionez, ez dugu inolaz ere nahi zahartzaroa eta dependentzia identifikatu ez baitira gauza bera. Adinekoak gero eta kopuru handiagoan zaintzaileak dira, hiloben eguneroko eta debaldeko zaintzaile bihurtzen baitira maiz.

Aipatzekoa da baita gizonen parte-hartzea zaintza lanetan eta etxeko lanetan asko handitzen dela jubilazioa eta gero: emakumeen parte-hartze altuena etxeko lanetan 35 eta 59 urte bitartean ematen bada %96ko jarduera tasarekin, gizo-

<sup>2</sup> Grafikoan ez ditugu gaixotasun arruntak ipini, irudia erabat desitxuratu egiten duelako. Gaixotasun arruntaren eragina honelakoa da: gizonengan 854.000 eta emakumeengan 1.567.000.

## 3. irudia

## Ezintuak jatorriaren arabera, mila pertsona, 2008, Espainia



nezkoetan parte-hartze altuena 60 urtetik gorakoetan ematen da, %74ko tasa-rekin<sup>3</sup>. Gainera aurrerago aipatu dugun legez bizi-itxaropena luzatu egin da eta luzapen honekin dependentziarik gabeko bizitza ere luzatu egin da. Baina ezin dugu ukatu gaixotasun eta autonomia arazo batzuk zahartzaroari erabat lotuta daudela. Gainera, emakumeen bizi-itxaropena gizonena baino handiagoa denez, zahar dependenteen artean emakumeak gehiago nabarmena dira. Populazioaren zaharkitzeak eta adinekoen zaintzak *long-term-care* deiturikoaren arazoa sortzen du, hau da, epe luzeko zaintzena.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Sailak (2007) egindako ikerketaren arabera, zaindutako adinekoen gehienak, %66, emakumeak dira eta laguntza jasotzen dutenen feminizazioa areagotu egiten da zenbat eta zaharragoak izan (80 urtetik gorako zainduen %74 emakumeak dira) eta gizonekin, noski, alderantzizkoa gertatzen da. Zainduen ia denak, %96ak, gaixotasunen bat dute edo tratamenduren bat hartu beharra daukate. Mendekotasun-egoeran dauden adineko gehienek (%87) laguntza behar dute etxeko lanak egiteko eta eguneroko jarduerak betetzeko (%81). Eguneroko zaintza pertsonalerako (garbitu, jan...) laguntza behar dutenen portzentaia nabarmen baxuagoa da, %52.

Arreta zaintzaileengan jartzerakoan orain aipatutako Etxebizitza eta Gizarte Sailak (2007) argitaratutako ikerketa hartuko dugu oinarritzat. Azterketa hori ez da zaintzaile guztien gainekoa adinekoak zaintzen dituztenen gainekoa baizik. Dena den klabe interesgarriak ematen dituelakoan gaude. Zaintzaileen profilari

<sup>3</sup> Eustat, *Denbora Aurrekontuen inkesta*, 2003.

dagokionez, gehienok susmatzen genuena berresten da: profil tipikoa femeni-  
noa, erantzukizun handikoa eta familiakoa da. Eta horrela da zaintzaile guztien  
%77 emakumeak direlako, bakarrik %27k emandako laguntza bigarren mai-  
lakotzat har daitekeelako eta erantzuleen %86 zaindutakoaren senitartekoak di-  
relako<sup>4</sup>.

Gainera zaintzaileen %37k egunero eta «egun osoz» (8 ordutik gora) zain-  
tzen dute, beraz, neurri handi batean adinekoen zaintza «zaintza intentsiboa»  
dela esan daiteke. Intentsitatean bi faktorek eragiten dute batik bat: adinak eta  
jarduera motak. Zenbat eta zaharragoa izan orduan eta zaintza premia handia-  
goa izaten da eta zaintza pertsonala behar dutenen zaintza da intentsiboena (ho-  
rietako %43k egunero 8 ordutik gorako laguntza behar dute). Jakina horrelako  
intentsitate handiko lanak zaintzaileengan ondorio nabariak ditu, bai aisialdiare-  
kin eta familia-bizitzarekin loturiko ondorioak (%63), osasunarekin lotutakoak  
(%43) eta ondorio profesionalak (%40)<sup>5</sup>. Datu guzti hauek ikusita harrigarria  
iruditzen zaigu zaintzaileen %73k, euren esanetan behintzat, laguntza osagarrien  
premiarik ez izatea beren zeregina errazteko.

### 3. Ordaindutako etxeko eta zaintza lanak

Esan dugu ekonomia ez-ofizialetatik ezkutuena ekonomia domestikoa dela  
seguru asko ez delako merkatutik pasatzen eta ez duelako bere helburuekin fun-  
tzionatzen, hau da, irabaziak maximotzeko asmoarekin. Baina badaude baita  
beste ekonomia ez-ofizial batzuk merkatuko logikarekin eta helburuekin fun-  
tzionatzen dutenak. Hauen artean, batzuk ezin dira aitortu produzitzen eta sale-  
rosten dena ilegala delako, hau ekonomia klandestino edo ilegala deituko dugu.  
Baina badago baita ekonomia bat, merkatuko logikarekin funtzionatu arren eta  
bertan produzitzen eta salerosten dena legala izan arren aitortzen ez dena, eta  
honi ekonomia informala edo irregularra deituko diogu. Jakina, ez aitortzearen  
arrazoi nagusia norbaitek horrekin irabazi egiten duela izaten da.

Ordaindutako etxeko eta zaintza lanak maiz ekonomia informal honetan  
sartzen dira, horrela ikusten da behintzat Eurobarometroak 2007an argitaratu  
duen *Ekonomia Informalari buruzko Inkesta*<sup>6</sup>. Inkesta honetan galdetzen da bai  
erositako ondasun eta zerbitzuen inguruan (beraz ekonomia informalean kon-  
sumitzaile moduan aritzen direnei) eta baita egindako lan irregularraren ingu-

<sup>4</sup> Gainera bi zaintzaileetatik bat zaindutakoaren semea edo alaba (batez ere alaba) da.

<sup>5</sup> Ondorioak honelakoak dira: denbora libre falta, nekea, laneko ordutegiak betetzeko arazoak, pilulen beharra.

<sup>6</sup> Inkesta guztiak kontuz irakurri eta interpretatu behar badira, gai honen ingurukoak oraindik ere kontu handiagoz. Hortaz, kontsumo datuak zuhurki hartu behar badira, lanari buruzkoa oraindik zuhurtasun handiagoz, kontsumoa ez bezala, lan irregularra toki askotan zigortu egiten delako.



ruan ere (hau da ekonomia informalean langile moduan aritzen direnei). Inkesta honen arabera EB-27ko populazioaren %11k ekonomia irregularreko produktak erosi izana aitortzen du: gehienak, %22ak, CDak, DVDak, ordenagailuak eta jantziak eta bigarren lekuan, %17ko portzentaiak, zerbitzu domestikoak erosi izana aitortzen du. Langile irregularrei dagokionez, lanbide aipatuena zerbitzu domestikoena da batez ere garbiketa zerbitzuak eta pertsona dependenteen zaintza zerbitzuak. Lan hauek nagusi dira nabarmen bai Hegoaldeko Europan (%30) bai Europa Kontinentalean ere (%23). Hala ere, Ipar eta Erdialdeko Europan gehien aipatutako enplegu irregularra eraikuntzarena da.

Ekonomia informalaren tamaina ezberdina da herrialdeen arabera eta baita garaiaren arabera ere. Orokorrean handiagoa da garabideko herrialdeetan garrantuetan baino eta ziklo ekonomikoak ere eragin nabarmena du. Honela gaur bizi dugun krisiak ekonomia informala handitu egingo duela espero daiteke eta okupazioaren datuak ikusita 2008an horrela gertatu dela esango genuke. Hazkuntza horren adierazle gisa INEM-ek eta INE-k emandako datuen arteko ezberdintasuna har daiteke. INEM-en azken datuen arabera EAEn 91.362 langabetu daude eta INEren datuen arabera berriz 67.300 mila, hau da, Inem-eko datua baino nabarmen baxuagoa<sup>7</sup>. Hau honela irakur daiteke: krisiaren eraginez langabezia igotzeaz gain jarduera batzuk ekonomia formaletik ekonomia informalera pasatzen dira, besteak beste, enplegatzaileei merkeago ateratzen zaielako.

Beraz, Europan<sup>8</sup> merkatuko etxeko eta zaintza lanak askotan ekonomia irregularrean sartzen dira eta honek lan hauen prekaritatearen ideia ematen digu. Baina enplegu hauen prekaritatearen informaltasuna edo irregulartasuna baino haratago doa eta enplegu erregularrean ere ematen da. Beraz, merkaturatzeak ez du lanbide honen profesionaltasuna ekarri oso baldintza kaskarreko enplegua baita orokorrean. Honek egia esan ez gaitu asko harritzen kontuan izanda oso gutxi baloratutako lana izan dela etxeko andreak egindakoa, beraz «logikoa» da norbait kontratatzerakoan ere gutxi baloratzea eta gutxi baloratzen bada txarto ordainduko da eta lan baldintzak ez dira asko zainduko. Hau da, erreproduktzio lan hauek familiako emakumeek burutzen dituztenean ez dira inoiz benetako lanak bezala ikusi, beraz, kanpoko emakumeak kontratatzean askotan ez dira benetako enpleguak sortzen eta nahiz eta kontratu formalak egin langile horiek ez dituzte besteen baldintza berdinak izango, bigarren mailako langileak, hots, langile diferenteak izango dira.

Etxeko zerbitzu hauek beti arlo publikoa eta pribatuaren artean kokatzen dira: publikoan soldata baten truke egiten direlako eta pribatuan etxebizitza pri-

<sup>7</sup> Inem-ek erregistratutako langabetuak kontatzen ditu eta Ineko datuak berriz inkesta batean (EPA) oinarritzen dira. Datuak ez dira erabat konparagarriak zenbait arrazoi direla kausa, baina hala eta guztiz ere ezberdintasuna oso adierazgarria iruditzen zaigu.


<sup>8</sup> Europan helburuetako bat enplegu informala enplegu formala bihurtzea da, hau Lisboako estrategia lortzeko oso lagungarria izango litzatekeelako.

batu batean egiten direlako. Lanak espazio pribatuan burutzeak baditu bere on-dorioak, langile eta enplegu-emailearen artean ez baitira bakarrik lotura profesionalak ematen, lotura pertsonalak ere sortzen dira eta lotura hauek enplegua baldintzatzen dute. Askotan nolabaiteko tratu familiarra edo «maternalismoa» ematen da eta egoera laborala familiarren izaeraren arabera oso ezberdina izan daiteke. Oraindik ere langile eta nagusiaren arteko erlazio horretan neskametzak edo morrontzak erlazio prekapitalisten arrastoak aurki ditzakegu.

Lan hauek neurri batean behintzat merkaturatzeko joera izan badute ere datu guztien arabera emakumeen lanak izaten jarraitzen dute, lanbide erabat femeninoa baita. Honela INEk eskainitako azken datuak aurretik esandakoa baieztatzen dute, estatuan, zerbitzu domestikoan lan egiten dutenen %93 emakumeak dira eta. Dena den esan beharra dago ez dela erraza sektore honen benetako tamaina ezagutzeko askotan, lehen esan dugun bezala, informala delako. Dena den informaltasun honek ez du esan nahi estatistiketan agertzen ez denik. Hau da emakume bat etxeko langilea izanda ez badago gizarte-segurantzian altan emanda, lan merkatuko estatistiketan okupatu bezala agertuko da egiten diren inkestetan horrela erantzuten badu.

Gainera INEk emandako informazioaren arabera (ikus 4. irudia), etxeko langileen %29 30 eta 39 urte bitarteko emakumeak dira eta %66 25 eta 49 urte bitartekoak dira, hau da, pentsa dezakegu etxeko langileen ehuneko altuak euren familietan ere zaintza beharrak dituztela eta seguru asko enplegua eta etxeko la-

## 4. irudia

**Etxeko langileak adinaren arabera Espainian, 2008**

*Iturria:* Ine, geuk eginda.

nak bateratzeko arazo ugari izango dituzte. Askotan bere etxeetan lanak gainezka egiten du, are gehiago autonomia gutxi dutenen kargu direnean. Horrez gain, azken urteetan zaintza lanetan nolabaiteko berregituraketa eman da, batez ere belaunaldi ezberdineko emakumeen artean eta herri ezberdinekoen artean eta honek emakumeen arteko ezberdintasun sozialak eta ekonomikoak sakondu ditzake.

Nahiz eta etxeko langile gehienak emakumeak izan datuak emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak nabarmentzen dituzte: etxeko gizonetzko langile gehienentzat, %84 hain zuzen ere, jardunaldi osoko enpleguak dira hauek eta berriez emakume erdientzat (%52) denbora partzialeko lanak dira. Honek erakusten digu adar honetan ere lan merkatuan orokorrean gertatzen diren ezberdintasunak erreproduzitu egiten direla. Baina erakusten digu baita, aurreko grafikarekin lotuta, etxeko langile emakumeek seguru asko sarritan merkatuko lanak eta euren etxeko lanak bateratu beharko dituztela nahiz eta adar honetako lanen ordutegiak horretarako aiposenak ez direla susmatzen dugun.

Eta 2008<sup>9</sup>ko datuak beste ezberdintasun batzuk ere agerian uzten dituzte, orokorrean gizonetzkoak aparteko ordu gehiago egiten badituzte, adar honetan normala den bezala emakumeen ordu estrak askoz gehiago dira. Baina gizonen ordu estra guztiak ordaindutakoak badira emakumeen kasuan astean zehar egindako ordu estren %28 ordaintzekekoak dira (ikus 1. taula).

#### 1. taula

##### Astean egindako ordu estrak, 2008 (mila ordu)

	Gizonak	Emakumeak
Ordaindutako ordu estrak	7,4	69,6
Ordaindu gabeko ordu estrak	—	27,1


Langile hauen soldata baxuak ere aipatzekoak dira aipatzekoak diren bezala gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak. Azken datuen arabera<sup>10</sup> eta ondorengo grafikak (5. irudia) erakusten duen bezala langile hauen soldata ia batez besteko soldaten erdia da (%53a). Sektore honetako gizonetzkoen soldata batez besteko soldata maskulinoaren %61 da eta emakumeen kasuan aldea berdina da. Eta antzekoa da baita gizon eta emakumeen arteko aldea orokorrean eta sektore honetan ematen dena: kasu bitan emakumeen urteko soldata gizonen batez besteko soldataren %74 da.

<sup>9</sup> 2008ko datuak hirugarren lauhilekokoak dira, hau idazterakoan argitaratutako azkenak zirelako.

<sup>10</sup> INE, *Encuesta de estructura salarial* 2006.

## 5. irudia

## Urteko batzbesteko soldatak Espainian, 2008



*Iturria:* INE, geuk eginda.

Maiz, Gizarte Segurantzarekiko erlazioak markatzen ditu irregulartasunaren mugak eta langile irregularrak alta emateke daudenak, kotizatzen ez dutenak edo zuzen kotizatzen ez dutenak izango dira. Orain arte etxeko langile erregularrak Gizarte-segurantzaren erregimen berezian sartuta daude eta adituena araberaren erregimen erabat diskriminatzailea da arrazoi askogatik. Batzuk aipatzekoan hauek azpimarratuko genituzke:

- Ez dago lan-ikuskaritzaren kontrolik.
- Erregularizatzeko aukerak txikiagoak dira. Honela langileak ezin da altan eman asteen 18 ordu baino gutxiago egiten badu lan eta hainbat kasutan berak ordaindu beharko du.
- Gizarte estaldurak mugatuak dira: ez ditu lan istripuak onartzen, bajako lehen 28 egunetan ez da ezer kobratzen, ez du langabezia eskubiderik ematen eta pentsioak, kalkulatzeko modu berezia dela eta, gizarte segurantzaren osoko baxuenak dira.
- Nahiz eta arauak bete lan baldintzak prekarioak dira ez baitaude normalizatuak. Halaber, gehienetan enplegu-emakumeak erabakitzen du eta adibidez soldata finkatzerakoan emakumearen soldata da erreferentzia eta ez familia osoaren soldata. Gainera, dakigunez orokorrean emakumeen soldatak gizonen soldata baino baxuagoak dira.


Gizarte Segurantzako datuak zerbitzu domestiko formalaren tamaina erakusten du eta azken datuen arabera (2008ko azarokoak) EAEn Etxeko langileen erregimenean alta emandakoen kopurua 13.463 dira, %97,6 emakumeak. Etxeko langilearen ogibidea, neskamearena, aspaldiko lanbidea da, eta beti klase lanbidea izan da, emakume pobreen kontua izan da. Baina orain, klase ertain eta ertain-baxuko emakumeak lan merkatuan sartzean etxeko langileen eskaria ikaragarri handitu da. Dena den badago oraindik ere klase diferentzia nabarmena: klase altuko familiak bizitza osoan kontratatzen badu, besteetan ez da horrela izaten, kontratazioa askoz puntualagoa izaten da eta familiaren zikloarekin lotura estua du. Eskari honetan faktore askok eragiten dute, besteak beste (Colectivo Ioé, 2001):

- Familiaren bizitza zikloaren momentuak: sortzen, handitzen, txikitzen ala desagertzen. Honek bere tamaina eta beharretan eragiten du.
- Zerbitzu parafamiliarren eskaintza pribatuak eta publikoak.
- Familien eros-ahalmenak (esan dugu normalean familiako emakumearen soldatarekin lotura estua edukitzen duela)
- Familiako kideen osasun egoerak.
- Beste pertsona batzuen laguntzak, batez ere senitartekoena eta lagunena.

Eskariaren igoerari inmigrazioaren gorakada eranstean badiogu lanbide honen beste ezaugarri bat azalduko zaigu: etnizazioa. Hau da etxeko langile asko emakumeak dira eta asko emakume immigranteak. Hegoaldetik Iparraldera zaintzera etortzen dira eta batzutan seme-alabak jatorriko herrian familiako beste emakume baten ardurapean lagatzen dituzte. Gizarte Segurantzaren arabera 5.935 emakume immigrante daude zerbitzu domestikoan, hau da,

## 6. irudia

### Gizarte-Segurantzaren Etxeko Langileen Erregimen bereziko langileak EAEn, 2008



*Iturria:* Gizarte Segurantza, geuk eginda.

erregimen honetan alta emanda dauden emakumeen %45<sup>11</sup>. Europako Bata-suneko jatorria oso gutxi dute %93ren jatorria bestelakoa baita (ikus 6. irudia). Lanbide honetako emakume asko eta asko latinamerikakoak dira eta honen atzean hizkuntzaren arrazoia aurki daiteke. Inmigrante askorentzat etxeko lanak lan merkatuan sartzeko bide bakarra da eta askok lehen pausua bezala ikus dezakete. Bertakoentzat berriz, batez ere ezkonduentzat, familiako soldata handitzeko modu bat izan daiteke.

#### 4. EAEko etxeko langileen egoera

Ez da erreza etxeko langileen egoera ezagutzera. Estatistikek ez dute testuan zehar emandako informazioa baino askoz gehiago ematen. Beraz, talde bati buruz, gure kasuan, etxeko langileena, zerbait gehiago jakin nahi bada ikerketa bereziatar jotzea besterik ez dago. Ikerketa berezi hauek informazio ugari eman ohi dute baina askotan oso puntualak izaten dira eta ez dute jarraipenik izaten. Etxeko langileen kasuan Emakundek 2005 urtean EAEko Etxeko langileen lan baldintzen inguruko inkesta argitaratu zuen<sup>12</sup>.

Inkestaren arabera elkarrizketatutako emakumeen %67ak Gizarte Segurantzaren alta hartzeke dagoela aitortzen du. Alta portzentaia altuagoa da atzerritarren artean (%37) bertakoen artean baino (%24) eta gainera batzuen eta besteen arrazoiak ezberdinak dira. Inmigranteen kasuan, ea denak (%96) baimen eza adierazten dute alta hartzeke egotearen arrazoi gisa. Bertakoen kasuan aldiz arrazoi nagusia horrela hobeto ateratzen zaiela da (%40) eta bigarren arrazoia (%32) ez dutela horretaz hitz egin. Hau da irregulartasuna arruntagoa da bertakoengan atzerritarrengan baino. Honen atzean bi arrazoi egon daitezke: alde batetik bertakoek, senarraren bitartez gehienetan, gizarte segurantzaren onurak jasotzen dituztela eta bestetik «neskame» bezala agertzeak status galera izan daitekeela batzuentzat, senarraren statusari helduta maila sozial altuagoa izango dute eta.

Atzerritarren eta bertakoen artean badaude baita beste diferentzia batzuk ere. Bertako gehienak (%37) 30 urtetik beherakoak dira edo 46 urtetik gorakoak (%34), atzerritarren kasuan, berriz, %45a 31 eta 45 urte bitartekoak dira eta ez dugu ahaztu behar adin tarte honetan norberaren zaintza lanak normalean handiak izaten direla. Bertakoen erdiak (%51) ez du umerik eta inmigranteen kasuan berriz %66ak gutxienez ume bat daukate (eta gehienez lau). Gainera inmigranteen ia erdiak (%46) 12 urtetik beherako haurrak dauzkate eta egoera horretan dauden bertakoen portzentaia %24koa da. Datu hauek ikusita,

<sup>11</sup> Datuak ez dira erabat berdinak, langile guztien kasuan datua hileko azken egunekoak izaten direlako eta atzerritarren kasuan ez da horrela.

<sup>12</sup> Laginaren tamaina 550 emakumeena da, konfiantza maila %95 eta akats marjinak ez du %4,2a gainditzen.

nahiko nabarmena da norberaren enplegua eta zaintza lanak bateratzeko orduan inmigranteek bertakoek baino arazo gehiago izango dituztela. Ikasketa mailari erreparatzen badiogu atzeritarrek bertakoek baino maila altuagoa dute: inmi-granteen %59ak bigarren mailako ikasketak dituzte eta %20ak unibertsitate mailakoak eta bertakoen kasuan ehuneko hauek %38 eta %6koak dira.

Kontratua aztertuz gero, gehienak (%73) hitzezko kontratuak dira. Hitzezko kontratuak Gizarte Segurantzari alta hartzeke daudenen artean oso oso zabaldua daude, %89k horrelako kontratuak baitituzte eta ez da hain arrunta alta daukatenen artean (%41). Idatzizko kontratuak, nahiz eta gutxienak izan, normalagoak dira inmigranteen artean (%32) bertakoen artean baino (%14).

Eginkizunei dagokionez elkarrizketatutakoen %60ak etxeko lanak eta dependenteen zaintza lanak egiten dituztela aitortzen dute, %21ak bakarrik zaintza lanak egiten dituzte eta gainontzeko %18ak bakarrik etxeko lanak. Eginkizunetan aldaketa nabaria eman da azken urteetan etxeko lanetatik zaintza lanetara. Ohiko zerbitzuak etxekoak izaten ziren (garbiketak batez ere) eta neurri txikiagoan umeen zaintza baina gaur egun, aldaketa sozio-demografikoak eraginda, gero eta gehiago kontratatzen da dependenteak zaintzeko.

Etxeko langile gehienak, %78, eguneko langileak, kanpoko langileak dira. Barne- langileen %37 alta hartuta dago (batez bestekoa baino gehiago). Barne-emakumeen lan orduak amaierarik gabekoak direla esan dezakegu, %85ak egunero 10 ordutiko gora lan egiten dutela esaten dute eta. Gainera askotan (%62) asteburuko egunen batean ere lan egin behar izaten dute. Barne- langileen ia hiru laurdenak (%73) irteteko astean 36 ordu baino gutxiago daukate eta soldata 571 euro eta 770 euro tartekoa izaten da.

## 5. Mendekotasuna gaur egun: legea eta finantziarioa

Ikusi ahal izan dugunez, gure inguruan zaintzaren lana batez ere gai pribatua izan ohi da. Azken hamarkadetan, aldiz, errealitatearen aldaketei aurre egin nahian agintari publikoek honen aurrean izandako jarrera zerbait aldatu da. Nahiz eta jakin gai honetan Europako herrialdeen artean aldeak handiak direla, bilakaera orokorrean hiru fase bereizi daitezke.

- Hirurogeiko hamarkada arte gutxi gorabehera politika familiarak familia eredu klasikora egokitzen ziren, hau da, emakumeen rol nagusia eta ia bakarra etxeko andre izatea zela onartzen baitzen. Beraz, zerbitzu sozialak laguntza-zerbitzuak ziren eta gehienak arrisku egoeran zeuden adingabeei zuzenduta zeuden.
- Hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera eta laurogeiko hamarkadan, aldaketa sozialak behartuta, «genero ikuspegia» txertatzen has-

ten dira eta hau kontziliazio politiketan gauzatzen da, hau da, helburua emakumeek lan biak, etxekoa eta kanpokoa, egitea izango da.

- Laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera eta batez ere XXI. mendea hasita gero autonomia gutxi edo dependentzia egoeran daudenentzat zerbitzu publikoak sortzeko joera nabarmentzen hasten da: Honekin batera zaintza lanetan gizonen parte-hartzea bultzatzeko ahaleginak egiten dira. Dependentzia legea testuinguru honetan kokatu beharko genuke. Espero dugu gaur bizi dugun krisiak ez atzera botatzea orain arte egindako gutxi hori.

Testuinguru horretan, 2006ko abenduaren 14an, *Autonomia pertsonala bultzatzeko eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen arretarako Legea* onartu zen Espainiako estatu mailan. Lege honen arabera, oinarritzko premiak betetzeko bere kabuz ezin molda daitezkeenek zainketak jasotzeko eskubidea dutela aitortzen du eskubide publiko eta unibertsal bezala. Legea 2007an jarri da indarrean eta pixkanaka aplikatuko da. Hortaz, espero dute 2015rako babes sistema erabat garaturik egongo dela. Sistema hori zerbitzu publiko, pribatu eta itunpekoen sare batek osatzen du. Legeak ere zenbait motatako prestazio ekonomikoak barneratzen ditu: zerbitzuarekin lotutako prestazioa, familian zaintzeko eta profesional ez diren zainzaileei laguntzeko prestazioak eta asistentzia pertsonala jasotzeko prestazio ekonomikoak (azken hau urritasun handia duteentzat soilik).

Nolanahi ere, ezarri nahi duten sistema duintasunez aplikatzeko aurrean duten erronka izugarria da. Eskaini nahi dituzten zerbitzuen egoera gaur egun guztiz eskasa baita estatu mailan. Adibidez, eskaini nahi diren zenbait zerbitzuen egoera hauxe da:

- Tele-asistentzia: gaur egun 65 urtetik gorakoen %2,05ek jasotzen dute.
- Etxeko laguntza: %3,1 jasotzen dute.
- Eguneko zentroak: %0,46rentzat.
- Egoitzak: %3,6rentzat baino ez dago plazarik<sup>13</sup>.

Horrez gain, lege honek kritika ugari jaso ditu mendekotasun kontzeptutik abiatuta bere izaera mugatuegiraino (haurren estaldura tasa eta etorkinei ezarritako baldintzak, besteak beste). Halaber, zerbitzu publikoak lehenetsi ordez, etxeko zainketari garrantzi handia ematen dio legeak. Hau da, zaintzea aukeratzten duten familiakoentzat laguntza ekonomikoa eta gizarte segurantzaren kotizazioa aurreikusten ditu. Bestalde, legeak zainketa zerbitzu pribatuetarako diru-laguntzak bideratuko direla jasotzen du. Hala ere, ez du zehazten nolako tratua

---

<sup>13</sup> Iturria: «Mendekoen Arretarako Euskal Sistema Publiko Baten Aldeko Plataforma», *Lan Harremanak* Aldizkaria/15 (2006-II) (65-104).




izango duten etxeko langileen kontratazio pribatuak. Testuinguru honetan ezin dugu ahaztu, gorago aipatu dugun moduan, gaur egungo etxeko langileen lan-baldintzak arautzen duten legeak dituen gabezia nabariak.

Legearen beste arlo garrantzitsu bat zerbitzuen finantzazio sistema da. Administrazio mailen arteko finantzazio sistema ezartzen duen arren, erabiltzaileek zerbitzuen zati bat ordaindu beharko dute. Hori dela eta, «erabiltzaile batzuek ez dute prestazio publiko hori eskatuko eta soluzio pribatuak bilatuko dituzte, familiaren baitan nahiz gaizki ordaindutako etxeko zerbitzuetan»<sup>14</sup>.

Lege honen ezarpen maila aztertzeke funtsezkoa da ikustea zenbat baliabide zuzenduko diren bere aplikazioa bermatzeko. Dakigunez, sistema hau finantzatzeko maila administratibo ezberdinen konpromisoa beharrezkotzat jotzen da legean, baina aldi berean, Estatuak gutxienekeo ezarpena ziurtatuko duela jasotzen da, eta ekarpen hori Estatuako Aurrekontuetan islatzen da. Horrezkero, 2009rako aurrekontuetan 1.158,69 milioi euro aurreikusten dute Mendekotasun arretarako zerbitzuak ezartzen jarraitzeko. Hauxe 2008ko hornikuntzarekiko %33ko igoera bada ere, ezin dugu ahaztu kopuru honek Estatu aurrekontuan jasotako Gizarte Gastuaren %0,006koa dela (ikusi 7. irudia).

#### 7. irudia

**Estatuko aurrekontuetan agertzen den Mendekotasunari arretarako diru kopurua (milioi eurotan)**



*Iturria:* 2009ko Estatuako Aurrekontuak. Liburu horia: 38 orria.

<sup>14</sup> Ibid. 81 orr.

Aurrekontu honetan adierazten da «Autonomia eta menpekotasunari eskaintzen zaion arreta sistema errealitate bat dela Espainian» eta hortaz «eskubidez, ziurtatzen du menpekotasun egoeran dauden pertsonen gizarte zerbitzuak eta laguntza ekonomikoak eskuratzeko aukera, bizilekua edozein izanda eta ekitate eta kalitate baldintzetan» (2009ko Estatu aurrekontuak)<sup>15</sup>.

Mendekotasunari buruzko Informazio Zerbitzuan jasotzen diren datuen arabera, 2008ko uztailan mendekotasun arreta jasotzen zutenak 387.933 pertsonak ziren. Aldiz, Mendekotasunari buruzko liburu zurian (2005) jasotzen denez, adibidez, 80 urte baino gehiago duten pertsonak 2 milioi dira (hau da populazioaren %4,6) eta horiek ez dira noski mendekotasuna duten pertsona guztiak.

Legean ezartzen den moduan, prestazio hauek era progresiboan eta gradualean jarri dira martxan. Hortaz, 2009an, mendekotasun maila handia dutenak (1. eta 2. mailan) eta egoera larrian dauden mendekoak prebentzio, tele-asistentzia, etxeko laguntza, egun eta gau egoitzak eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak eskuratzeko dutela esaten da. Nolanahi ere, zalantza bat sortzen zaigu hau irakurtzean, baliabide ekonomiko nahikorik jarriko al dira horrela izan da-din?

Aurrekontuetan esaten da halaber «legean zerbitzuak dira lehentasuna. Hala ere, salbuespen gisa, administrazio eskudunek zerbitzuak eskaini ezin dutenean, mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza ekonomikoa eskuratzeko eskubidea izango dute».

Mendekotasun Legea sustatzeko ezinbestekoa da administrazioen arteko lankidetzak, guztiak eskudunak dira eta. Hortaz, Sistema honen finantzapena Erkidego Autonomoen eta Estatuaren Administrazio Orokorraren arteko itunen bidez martxan jartzen da, eta baliabide horien banaketa *Autonomia eta Mendekotasun Arretarako Sistemaren Lurralde Kontseiluan* adosturiko irizpideen arabera ezarriko da. Kontseilu honen funtzionamenduari jarraipen zuzena egin beharko zaio zer nolako erabakiak hartzen dituen ikusteko.

Harrigarria da, halaber, «Impacto de Genero» estatuko mugimendu feministaren plataformaren presioari esker Estatuko aurrekontuak lehenengo aldiz atera duen «2009rako Aurrekontu Orokorraren Lege Proiektuaren Genero Eraginaren Txosten»-ean ez dela Mendekotasunaren Legea aplikatzeko ezarritako neurrien ebaluaziorik egiten. Gai hau bakarrik Lan eta Inmigrazio Ministerioaren diagnostika egitean aipatzen du, eta datu adierazgarri bat kontuan hartzen

---

<sup>15</sup> El Sistema de Autonomía y Atención a la Dependencia es hoy una realidad en España que garantiza, por derecho, el acceso a servicios sociales y prestaciones económicas a las personas que se encuentran en situación de dependencia, cualquiera que sea su lugar de residencia y en condiciones de equidad y calidad.

du. Etxeko ardurak eta lanak aipatzean, emakume eta gizonen artean agertzen diren ezberdintasun nabariak aipatzen ditu (adibidez, emakumeak gizonezkoa baino denbora askoz gehiago eskaintzen ditu lan mota hauei), eta baita Mendekotasunaren Adierazle Orokorra barneratzen du. Adierazle honek mendeko populazioa (hau da, 16 urte baino gazteago eta 65 urte baina nagusiagoak direnak) enplegu bat izateko adina dutenen pertsonen kopuruarekin erlazionatzen du. Estatu mailan, adierazle honek honako errealitatea islatzen du azken bi urteotan:

## 2. taula

### Mendekotasunaren Adierazle Orokorra (2007-2008)

	2007	2008
Guztiak	47,04	46,88
Emakumezkoak	50,85	50,71
Gizonezkoak	43,33	43,17

*Iturria:* «Informe de impacto por razón de género del proyecto de ley de presupuestos generales del Estado para 2009» (2008).

Hala ere, datu hauek islatu arren ez du hitz bat gehiago sartzen eta taula honen ondoren gizarte segurantzaren eta bereziki pentsioen gaia aipatzen du, taula honi aipamenik egin gabe.

## 6. Ondorioak

Artikuluaren zehar aztertu dugun egoera ez da batere xamurra. Alde batetik zainketarako beharrak nabarmenak dira, populazioa gero eta urte gehiago bizi da. Hori berri ona da baina zahartzarora nola kudeatzen ari garen gizarte moduan akats asko erakusten ditu eta historian zehar zainketa lanaren balorazio ezak izan dituen ondorioak ere nabarmen geratzen dira. Are gehiago, gure ustez gizarte batek zaintzak kudeatzeko duen modua gizarte horren ongizatearen adierazle ona izan daiteke. Azken hamarkadetakoa emakumeen parte-hartze zabalak lan merkatuan zainketa lanaren gain familiak zuen rol zentrala mugitzen hasi da eta horren «krisia» areagotu egin da. Gure inguruan familia askok zaintza lanak bermatzea kontu pribatu bezala bizi izan dute. Etxeko eta zaintza lanak gero eta gehiago merkatuan «kontratatzeko dituzte», baina oso gutxi baloraturik daudenez, langile hauen lan baldintzak oso eskasak dira (soldata baxuak, ordutegi luzeegiak, hitzezko kontratuak,...) eta gaur egun gero eta etorkin gehiago betetzen ari dira sortu diren hutsuneak.

Orain Mendekotasunari arreta eskaintzeko legea onartu egin da 2006. urtean, baina bere bilakaera progresiboa momentuz oso astiro zabaltzen ari dela erakutsi digu. Horrez gain, administrazio maila ezberdinen lankidetzak eskatzen da praktikan jartzeko eta hori orain dela oso gutxi jarri da martxan. Beraz, arretaz jarraituko dugu lege honen aplikazioa, momentuz estatuko aurrekontuetan agertzen diren partidak legea indarrean jartzeko, dauden beharrek inaratu gero, oso mugatuak direla argi geratzen da. Beraz, hurrengo urtetako bilakaerak esango digun noraino baliagarria izango den honelako legeria gizartearen egiturak ukitzen ari den arazo honi erantzuteko.

## Bibliografía

- CABO, G. de et. al. (2005): *La presencia de las mujeres en el empleo irregular (con especial atención a las empleadas de hogar)*, Instituto de la Mujer.
- COLECTIVO IOÉ (2001): «Mujer, inmigración y trabajo». Madril: Instituto de Migraciones y Servicios Sociales, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.
- COM (2007): *Intensificar la lucha contra el trabajo no declarado*, Comunicación de la Comisión al Consejo, al Parlamento Europeo, al Comité Económico y Social europeo y al Comité de las Regiones, Bruselas.
- CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL DE ANDALUCÍA (2002). *La economía sumergida*, Junta de Andalucía.
- EUROBAROMETER (2007): *Undeclared work in the European Union*, Bruselas.
- EUSKO JAURLARITZA (2007): *Zaintza informala Euskal Autonomia Erkidegoan: zaintzaileen premiak*, Bilbo.
- HAINBAT EGILE (2008): «No habrá igualdad sin servicios públicos y reparto del cuidado. Algunas ideas para una política feminista», *IV Jornadas feministas de Euskal Herria*.
- HAINBAT EGILE (2008): «Zaintza informala Euskal Autonomi Erkidegoan: Zaintzaileen premiak», *Zerbitzuan* 43.
- IMSERSO (2005a): *Atención a las personas en situación de dependencia en España*, Libro Blanco, Madril.
- IMSERSO (2005b): *Cuidado a la dependencia e inmigración*, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Madril.
- LEWIS, Jane (2001): «The decline of the male breadwinner model: implications for work and care», *Social Politics*, 8.
- MENDEKOEN ARRETARAKO EUSKAL SISTEMA PUBLIKO BATEN ALDEKO PLATAFORMA (2006): «Zaintzeko beharretatik zainketak jasotzeko eskubidera», *Lan Harremanak*, II, 65-104.
- RODRÍGUEZ, Raquel (arg.) (2008): *Mujeres, trabajos y empleos en tiempos de globalización*, Icaria, Bartzelona.
- SANCHÍS, E. (2005): «Trabajo no remunerado y trabajo negro en España», *Papers*, 75.